

Ingeniaritza mekaniko graduko ikaslea naiz eta Leuvenen Erasmusen egon naiz 4.mailako 1. Lauhilabetekoan. Hiria txikia eta lasaia da eta hirigunean soilik ikasleak bizi dira. Izan ere 100000 biztanle daude eta 600000 ikasle, honek aditzera ematen du hiri honek daukan giroa.

Ostatua

Gomendagarria da KU Leuven unibertsitateak daukan erresidentzia eskatzeko orrialdean eskaera bat egitea, horrela publikoa den eta merkeagoa den erresidentzia bat lortzeko. Nire kasuan Mr. Karel Cruysberghs (hilero 330 euro ordaintzen nituen) erresidentzian egon naiz, zentrutik eta festa dagoen gunetik oso hurbil zegoena. Bestela erresidentzia pribatu batera joatea gomendagarria da, hauetan prezioak pixka bat garestiagoa dira eta gelak txikiagoak, baina KOT batean egotea baino askoz hobea da. Izan ere, erresidentzia batean egoteak da beste Erasmusekin erlazionatzeko aukerarik aproposena. KOT-etan aldiz belgiarrak bizi ohi dira eta hauek ez dira normalean atzerritarrekin hain adiskidetsuak.

Garraioa

Bertara iristeko gomendagarria da hegazkinez bidaia egitea, horretarako aukera desberdin ugari daude eta prezioak ez dira garestiegiak. Aukera aproposena Bilbotik Brussels Zaventem-eko aeroportura joatea da Brussels Airlines-ekin, aeroportu hau Leuvenetik 10 minutura baitago trenez. Bestela Ryanair-ek Brussels Charleroi aeroportura bidaiak eskaintzen ditu Biarritzetik eta Santanderretik. Hirian mugitzeko aukera aproposena bizikleta da, hiria txikia denez leku guztietara ailega zaitezke garraio bide mota honekin. Bizikleta bat lauhilabete batez alokatzeak 50 euro inguru balio du Velo enpresarekin, beraz prezioa nahiko aproposa da.

Unibertsitatea

Unibertsitatearen maila nahiko altua da, prestigio handia daukalako eta ikasle atzerritar asko daudenez ez dutelako erraztasunik ematen Erasmus ikasleentzat. Azterketak ahozkoak izan ohi dira idatzizko prestaketarekin, hau da lehendabizi azterketa idatzi behar da eta ondoren irakaslearengana jo eta honi azaldu. Proiektu ugari egin behar dira beraz lan asko egin behar da ikasgaiak gaintzeko, horrenbestez akademikoki Erasmus lasaia nahi duenarentzat ez da unibertsitate gomendagarriena. Hala ere esan beharra dago unibertsitateak oso fama ona daukala eta hemen ikasteak zure CV-ari itxura polita ematen diola (bereziki Holandan eta Belgikan lan egin nahi duenarentzat).

Janaria

Belgikako kultura gastronomikoa nahiko mugatua da eta supermerkatuek ez dute produktu aniztasun handiegirik eskaintzen. Supermerkatu merkeenak eta gomendagarrienak Aldi, Colruyt eta Lidl dira. Produktu asko (adibidez arraina edo lekak aurkitzea oso zaila da eta askotas garestiegia). Kanpoan jan nahi izanez gero orokorrean prezioak nahiko altuak dira eta jatetxe ugari daude hirian zehar baino orokorrean internazionalak izan ohi dira (italiarrak, mexikarrak, sushi jatetxeak...)

Festa

Leuvenen, hiri unibertsitarioa izanez, festa asteko egun guztietan aurkitu daiteke. Ez dago diskotekarik, festarako guneak Oude Markt-en dauden "garito"-ak izanik (Ambiorix taberna Erasmusentzat erreferentziazko festagunea izanik) . Hala ere Erasmus giro handiena ostiraletan, ikasle belgikarrak egun honetan etxera bueltatzen baitira, biltzen da. Egun honetan ESN-ak (Erasmusen elkarteak) edo Ekonomikak (ikasle elkarteak) festa ugari antolatu ohi ditu. Horrenbestez esan daiteke Leuven Erasmus hiria dela zentzu guztietan, horrek suposatzen duen giroarekin eta ikuspuntu horretatik oso hiri gutxik daukate European ezer antzekorik.

Bidaiak

Hiria Europako erdigunean egonda bidaiatzeko aukera handiak ematen ditu. Trenez Belgika osora, Holandara eta Luxenburgora iritsi daiteke arazorik gabe. Gomendagarria da Go Pass txartela ateratzea, izan ere honekin Belgikan zehar 10 bidai egin daitezke 52 euroren truke 26 urte baino gazteagoa bazara. Zaventem eta Charleroi-ko aeroportuetatik hegaldi merke asko daude eta Europako zonalde guztietara bidaiatzeko aukera eskaintzen dute prezio lehiakorretan.

Xabier Mendaza Sagastizabal